

# **MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA JARDUEREN MEMORIA**



**ERMUKO UDALTZAINGOA  
2014-2015**

# **ERMUKO UDALTZAINGOAK 2014-2015 IKASTURTEAN MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZAREN ESPARRUAN EGINIKO JARDUEREN MEMORIA**



# **MEMORIA. MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ERMUKO UDALTZAINGOA 2014-2015.**



- 1/ MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA. 2014-2015 IKASTURTEKO IRAILAREN 16tik 22ra
- 2/ EUSKO JAURLARITZAKO TRAFIKO ZUZENDARITZAREN FORMAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA 2014-2015
- 3/ EUSKAL HERRIKO ISTRIPUAK STOP ELKARTEAREN CONBICIVIVE-ELKARBIZI IZENeko PROIEKTUA 2014
- 4/ ISTRIPUAK STOP ELKARTEAREN BIDE SEGURTASUNARI BURUZKO ERAKUSKETAK. 2015eko IRAILA
- 5/ BISITA GIDATUAK 2014-2015

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

## MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.



### 1/ Mugikortasunaren Europar Astea.

Mugikortasunaren Europar Astea herritarrak garraio publikoan, bizikletaz edo oinez ibiltzeko sentsibilizatzea helburu duen kontzientziazio-kanpaina da, eta Europako hiriak garraio-modu horiek suspertzera eta horretarako behar diren azpiegitura berrietan inbertitzera animatzea. Irailaren 16tik 22ra izaten da urtero eta Europako Batzordearen Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren laguntza du. Europako hiri eta herri askotan aste oso bat ematen dute mugikortasun iraunkorraren hainbat aspekturen inguruan kontzientzia hartzeko jarduerak egiten.

Ermuan ospatzen dugun Mugikortasunaren Europar Astearen bizikleta ordezkio ibilgailu legeaz aldarrikatzea da helburuetako bat, jasangarritasunaren aldetik ingurumenarekin begirunetsua delako. Bestalde, Ermuan dugun beste helburu bat Udaltzaingoa herritar guztiengana hurbiltzea da, bide-hezkuntzaren eta, ondorioz, bide-segurtasunaren erreferentzia bilakatu gaitezen, eta, jakina! mugikortasun segurua suspertzearen erreferentzia izan gaitezen.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

## MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.



1/ A. Bizikletaren tailerrak I eta II: Mekanika-tailerra eta bizikleten erakusketa.

1/ Antolatzailea: Ermuko Udala.

2/ Laguntzaileak: Bicicletas Orbea S.Coop, Agirre Kirolak, Udal Bulego Teknikoa eta Udaltzaingoa.

3/ Non: Orbe Kardinalaren plazan eta Aritzmendi Udal Pilotalekuan.

4/ Norentzat: Ikasi nahi duen herritar ororentzat.

5/ Dinamika: bizikletaren ezagutza oinarrizkoa, mantentze- eta doitze-lanak, argi- eta segurtasun-osagai eta islagailuak eta bizikleta- eta kasko-erakusketa.

6/ Helburuak: Hiri barruko bideetan 16 urtetik beherakoek kaskoa erabiltzearen garrantziaz kontzientzia hartzea eta bizikleta erabiltzean segurtasuna areagotzea.

7/ Ermuko Udaltzaingoaren helburu partikularra: Herritarrek ikus dezatela udaltzainek bide-hezkuntzaren arloan egiten duten lanaren balioa.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.



1/ B. Bizikletaren tailerra III: Abilezia eta trebetasun tailerra (ginkana).

1/ Antolatzailea: Ermuko Udala.

2/ Laguntzaileak: Ermuko Txirrindulari Elkarte, Pedro Horrillo, Igor Astarloa, Aitor Hernandez eta Aitor Galdos, herriko ikastetxeak (San Lorentzo, San Pelaio, Eskolabarri, Ongarai Eskola, Anaitasuna Ikastola) Udal Bulego Teknikoa eta Udaltzaingoa.

3/ Non: Aritzemendi udal pilotalekuan edota Miguel Angel Blanco kiroldegian.

4/ Lehen Hezkuntzako 6. mailako gaztetxoentzat.

5/ Dinamika: Gonbidatutako txirrindulari profesional eta profesional ohien erakusketa eta ondoren haurren erakustaldia.

6/ Helburuak: 16 urtetik beherakoek hiri barruko bideetan kaskoa erabiltzearen garrantziaz kontzientzia hartzea eta behar denean argizko osagaiak erabiltzearena; bizikletan ibiltzeko trebetasunak areagotzea, bizikleta erabiltzean segurtasuna hobetzeko; zirkulazio-arauak ikastea eta bide publikoetan bizikletak duen ahultasun eta arriskuez ohartaraztea.

7/ Ermuko Udaltzaingoarean helburu partikularra: Herritarrek ikus dezatela udaltzainek bide-hezkuntzaren arloan egiten duten lanaren balioa.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.

- 1/ C. Bide-segurtasunarekin lotutako marrazki- eta eskulan-tailerra eta bide-ekintzen inguruan eskolan bertan landutako jolasak edo simulazioak.
  - 1/ Antolatzailea: Ermuko Udala.
  - 2/ Laguntzaileak: Antxitxiketan aisialdiko begirale-taldea, Udal Bulego Teknikoa eta Udaltzaingoa.
  - 3/ Non: Ikastetxeetan bertan (San Pelaio, San Lorentzo, Eskolabarri, Ongarai Eskola eta Anaitasuna Ikastola).
  - 4/ Lehen Hezkuntzako 3. mailako gaztetxoentzat.



# MEMORIA.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.



- 1/ C. Bide-segurtasunari buruzko marrazki eta esku-lan tailerra eta bide-ekintzen inguruan eskolan bertan landutako jolasak edo simulazioak.
- 5/ Dinamika: Bide-segurtasunaren inguruko marrazkiak eta esku-lanak egitea eta bide-ekintzen jolas eta/edo simulazioetako aktoreekin identifikatzea.
- 6/ Helburuak: Herri-ingurua eta bide publikoak ezagutzea eta oinezko moduan dauzkagun ahultasun eta arriskuez konturatzea.
- 7/ Ermuko Udaltzaingoaren helburu partikularra: Herritarrek ikus dezatela bide-hezkuntzaren arloan udaltzainek egiten duten lanaren balioa.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA.



1/ D. Lasterketa zikloturista.

1/ Antolatzailea: Ermuko Udala.

2/ Laguntzaileak: Ermuko Txirrindulari Elkarte, Pedro Horrillo, Igor Astarloa, Aitor Hernandez eta Aitor Galdós, Udal Bulego Teknikoa eta Udaltzaingoa.

3/ Non: Ermuko Udaltzaingoa kontrolatutako hiri-barruko zirkuitu itxi batean.

4/ Norentzat: Gogoia eta ilusioa duten guztientzat.

5/ Dinamika: Hau ez da norgehiagoka edo lasterketa bat, jai-egun bat da, bizikletaren eguna.

6/ Helburuak: Bizikleta ibilgailu ez kutsatzaile lege aldarrikatzea, baina modu seguruan, eta, jakina! bizikletak, ibilgailu denez gero, bide publikoan espazioa irabaztea.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### TRAFIKO ZUZENDARITZAREN FORMAKUNTZA KANPAINAK.

2/ Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzarekin izandako harreman estuaren emaitza Trafiko Zuzendaritzako Bide-hezkuntza eta Prestakuntza Alorraren eta Udaltzaingoaren arteko lana izan da, bai hezitzaileak prestatzeko jarduerak sutatzeko eta bai Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren eremuan prebentzioak duen garrantziaz sentsibilizatzeko. Irakasleentzako hezitzaileak prestatzeko kanpainetatik mantendu dena toki-administrazioen eremuan udal teknikariek eta tokiko aisialdi elkarteek ikastaroak egiteko aukera izan da.

Hezkuntzaren eremuan (ez unibertsitatekoan), bestalde, herriko ikastetxeekin lan egiten ari da irakasleei honako proiektua aurkeztuz. Trafikoko Baliabideen Katalogoan mugikortasun segururako biltzen den hezkuntza-materialaren berri eman zaie, bai eta prestakuntza-tailer bat eta ikastaroen inguruko informazioa ere, irakasleek kontzientzia hartu eta sentsibilizatzeko, beraien eguneroko eginkizunean gehiago inplikatu daitezen.



**MEMORIA.**  
**MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.**  
**SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK.TRAFIKO ZUZENDARITZA.**



2/ Sentsibilizazio-kanpainak ondorengo hiru kolektiboei zuzenduak daude bereziki: nerabe eta gazteei, beraientzat baitira antzerki-foruma eta Road Show delakoa; pertsona helduei, hitzaldi-mintzaldi baten bidez; herritar guztiei orokorrean, txirrindularientzako, moto-gidariantzako eta oinezkoentzako sentsibilizazio-dinamiken bitartez, eta haurrak lotzeko sistemei buruz herriko ikastetxeetako haur- eta lehen hezkuntzako ikasleentzako sentsibilizazio-dinamikak.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK. TRAFIKO ZUZENDARITZA.



2/ A. Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren eremuan prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio-kanpainak.

- 1/ Antolatzailea: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Hezkuntza eta Formakuntza Alorra.
- 2/ Laguntzaileak: Herriko ikastetxeak eta Ermuko Udaltzaingoa.
- 3/ Non: Haur- eta Lehen-hezkuntzako ikastetxeetako irteeretan, arratsalde.
- 4/ Norentzat: Guraso eta adingabeentzat, eta herritar guztientzat orokorrean, ibilgailuak haurrak lotzeko dituen sistema ezberdinak ezagutu ditzaten.
- 5/ Dinamika: Erabilera anitzetarako prestatuta dagoen kamioi bat erabiltzen da eta karpa bi bide-hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat jarduera egiteko: haurrak lotzeko sistemari buruzko informazioa eta erakustaldiak kamioi barruan, jolasak bideo-jolasekin, bide-segurtasunarekin lotutako opariak...
- 6/ Helburuak: Haurrak lotzeko sistemak ezagutzea eta behar bezala erabiltzea; haurrak lotzeko sistemen erabileraren inguruan indarrean dauden arauak betetzen direla egiaztatzea; haurrak lotzeko sistemak behar bezala erabiltzea haurraren pisu eta neurriaren arabera; ibilgailuan haurrak lotzeko jarlekuen erabiltzaileen ohiko galderei erantzutea eta parte hartzen dutenei haurrak lotzeko sistemen gaineko hedapen-materiala banatzea.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK. TRAFIKO ZUZENDARITZA.



2/ B. Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren eremuan prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio-kanpainak. Hitzaldi-mintzaldia bideoarekin, istripuak prebenitzeko: “Harrapaketen inguruko hausnarketak”.

1/ Antolatzailea: Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzako Hezkuntza eta Formakuntza Alorra.

2/ Laguntzaileak: Zahar Etxea, UKE eta Ermuko Udaltzaingoa.

3/ Non: Ermuko Zahar Etxean, arratsaldean.

4/ Norentzat: 64 urtetik gorako pertsonentzat (mendekotasunik gabeentzat).

5/ Dinamika: Ordu beteko saio honen metodologia harrapaketen eta horien ondorioez informazioa emateko eta hausnarketa egiteko dinamika ezberdinetan oinarritzen da (bideo bat ikusi eta hitzaldi-mintzaldi bat izango dira); halaber, udal teknikari batek, ibilbide osasuntsuak eta seguruak erakutsiko dizkigu, Ermua Mugi proiektuaren baitan.

6/ Helburuak: Harrapaketak ekiditeko ohiturak sustatzea, jokabide seguru eta arauetako errespetuzkoen onurak gogoraraziz (semaforoa berde dagoenean gurutzatzea, ibilgailuak zebra-bidean geratuta daudela seguru egonda eta abar); administrazioak har ditzaken neurriei buruz bertaratuek dituzten iritziak biltzea, bide-segurtasunarekin konprometitu daitezkeen.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK. TRAFIKO ZUZENDARITZA.



2/ C. Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren eremuan prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio-kanpainak. Antzerki-foruma “Norazko aldaketak”.

1/ Antolatzailea: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Hezkuntza eta Formakuntza Alorra.

2/ Laguntzaileak: DBHko herriko ikastetxeak eta Udaltzaingoa.

3/ Non: Ikastetxe bakoitzean bertan.

4/ Norentzat: DBHko 4. mailako ikasleentzat (nerabe eta gazteentzat).

5/ Dinamika: Lehen pertsonan lekuko direla, gazteak konprometitu eta identifikatuko dituen partaidetza-dinamika baten bidez, “autonomia” eta “erantzukizuna” kontzeptuak elkarrekin doazela ikusiko dute gazteek saio honetan, eta harrapaketen eta horien ondorioen inguruan hausnar eginaraziko zaie.

6/ Helburuak: Gidarien kolektiboak aurrikutsuak izan daitezkeen jokabideen gainean kontzientzia hartzea eta horiek prebenitzea..

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.

## SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK. TRAFIKO ZUZENDARITZA.



2/ D. Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren eremuan prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio-kanpainak.

- 1/ Antolatzailea: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Hezkuntza eta Formakuntza Alorra.
- 2/ Laguntzaileak: Ermuko Udala, Ermuko eta Eibarko ikastetxeak, Ermua-Eibar Gurutze Gorria, Eibarko Suhiltzaileak, Stop Istripuak eta Ermuko Udaltzaingoa.
- 3/ Non: Ermuko Ermua Antzokian
- 4/ Norentzat: DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzat (nerabe eta gazteentzat).
- 5/ Dinamika: "Road show"-a trafiko istripua duen pertsona gazte baten jai-gau bat irudikatzean datza. Pertsona ezberdinen testigantzak (poliziararena, 112ko medikuarena, suhiltzailearena, ospitaleko medikuarena, biktimaren senitarteko batena, eta hezur-muina larriki zauritu zaion pertsona batena) konbinatzen diren egoera baten multimedia emanaldia da, soinu inguratzaile eta irudi zirraragarriekin.
- 6/ Helburua: Europako beste herrialde batzuetan arrakasta handia izan duen Road Show dinamika hau, modurik berritzaile, eraginkor eta zirraragarrienetako bat da gazteak bideko jokabide zenbaiten arriskuez sentsibilizatzeko.

**MEMORIA.**  
**MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.**  
**CONBICIVIVE PROIEKTUA – ISTRIPUAK STOP ELKARTEAREN**  
**“ELKARBIZI”.**



3/ Zirkulazio-istripuek ukitutako pertsonei lagundu eta orientabideak emateko elkartearen ordezkariarekin lortutako harreman estuaren ondorioa DBH 1. mailako ikasleei bizikleta hurbiltzeko Euskal Herriko Istripuak Stop elkartearen Conbicivive-Elkarbizi proiektua izan da, aipaturiko elkartearekin lankidetzan garatutakoa. Helburua da Hezkuntza Iraunkor eta Seguruaren esparruan bizikleta gazteei hurbiltzea, bide publikoak guztiok erabili ahal izateko, errespetua eta erantzukizuna erakutsi beharraren mezua helaraziz, bizikletaren erabiltzailearen jokabide-aldaketa lortu nahian, eta oinezkoiei ere elkar-ulertze eta enpatia eskatuz, proiektua elkarbizitzaren erakusgarri izan dadin.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### CONBICIVIVE PROIEKTUA – ISTRIPUAK STOP ELKARTEAREN “ELKARBIZI”.



3/ A. Euskal Herriko Istripuak Stop elkartearen Conbicivive-Elkarbizi proiektua.

1/ Antolatzailea: Euskal Herriko Stop Istripuak eta Ermuko Udala.

2/ Laguntzaileak: Herriko ikastetxeak, Ermuko Txirrindulari Elkartea, herriko txirrindulari profesionalak eta profesional ohiak (Igor Astarloa, Aitor Galdos, Aitor Hernandez, Pedro Horrillo), Ermuko Urko BTT aldea eta Ermuko Udaltzaingoa.

3/ Non: Ikastetxetako instalazioetan bertan, San Pelaio plazan eta herriko bide publikoetan.

4/ Norentzat: DBHko 1. mailako ikasleentzat.

5/ Dinamika: Jarduera honen baitan hitzaldi bat izango da ikastetxeetan, ginkana edo bizikleta gaineko trebetasun-eta abilezia-zirkuitu bat eta ibilbide bat herriko bide publikoetan zehar.

6/ Helburuak: Txirrindularitza sustatzea, bizikletaren doikuntza eta mantentze-lanak erakustea, bizikleta gaineko trebetasunak hobetzea, bizikletaz ibiltzeko bide eta inguruak ezagutzea eta zirkulazio-arauak ere bai, eta bide-hezkuntzaren baloreak lantzea.

# **MEMORIA.**

## **MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA.**

### **BIDE-SEGURTASUNAREN INGURUKO ERAKUSKETAK.**



4/ Euskal Herriko Stop Istripuak elkartearen “Oinezko, ez hondatu zure bizitza” II Argazki Lehiaketaren Erakusketa Ibiltaria.

1/ Antolatzailea: Euskal Herriko Istripuak Stop elkarte.

2/ Laguntzaileak: Ermuko Udala, Udal Liburutegia eta Udaltzaingoa.

3/ Non: Ermuko Udal Liburutegiko sarreran.

4/ Norentzat: herritar guztientzat orokorrean.

5/ Dinamika: Gizartea bide-segurtasunarekin arazo bat dagoela eta guztion kontua dela konturatzea.

6/ Helburuak: Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien eta Lagun Aro Fundazioaren babesa duen lehiaketa honen helburua argazkiaren bidez bide-segurtasunaren kultura berri bat sustatzea da, ezbehar-kopurua gutxitzen laguntzeko, herritar guztiengan hausnarketa piztuz eta bide-arazoei irtenbidea aurkitzen ahaleginduz.

# MEMORIA.

## MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA.

### BISITA GIDATUAK.



#### 5/ Bisita gidatuak.

Herritarren Segurtasuneko sailekoontzat guztiz atsegina da herritar sektore ezberdinei (etxeko gaztetxoenei eta nagusienei) gure ateak berriro irekitzea, gure egoitza eta instalazioak, ibilgailuak, erabiltzen dugun materiala eta egiten dugun lana erakutsi eta ezagutzera emateko, hurrek beraien hizkuntzan uler dezaten eta egun batez polizia izatera jolas daitezten, eta pertsona nagusien hizkuntzan ere bai, bidean ibiltzean dituzten zalantzak, segurtasun faltak eta mugak azal diezazkiguten. Beraien eta gure arteko hurbilketa lortu nahi dugu eta beraien konfiantza irabazi, bide-hezkuntzaren arloan beraientzako erreferentzia izan gaitezen.

**MUGIKORTASUN  
SEGURURAKO HEZKUNTZA  
HELBURUA: ZERO IKUSPEGIA**



**ERMUKO UDALTZAINGOA**

**BIDE SEGURTASUNERAKO HEZKUNTZA.  
HELBURUA: ZERO IKUSPEGIA.**



# MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA.



Europako estatu guztietan gaur egun aplikatzen den bide-segurtasunerako estrategia da. Zero Ikuspegiaren oinarria da inor ez litzatekeela trafiko istripuetan hil behar eta ahalegin guztiak egin behar direla azpiegiturak, ibilgailuak eta giza-faktorea hobetzeko.

## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA.



Europar Batasunak bide-segurtasuneko espazio baterantz bideratutako 2011-2020 urteetarako bide-segurtasunaren inguruko orientabide politikoei buruz egindako komunikatuan Zero Ikuspegia aplikatzea gomendatzen du hobekuntza-proposamen gisa. Hori, Europako estatu-kide batzuk jada egiten ari diren moduan, epe luzera planteatu beharko litzateke zirkulazio-istripuetan gertatzen diren heriotzak saihesteko.

## **MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. KONTZEPTUA.**



Zero Ikuspegia Suedian Bide Segurtasunaren inguruan sortutako kontzeptua da eta zirkulazio-istripuen prebentzio-kontzeptuaren ikuspegi berri bat ekarri zuen. Une garrantzitsua izan zen estatu horretan parlamentuak 1997an Zero Ikuspegia Bide Segurtasunaren inguruko lan ororen oinarri izan behar zuela erabaki zuenean.

# **MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. OINARRI ETIKOA.**



Zero Ikuspegiaren abiapuntua da errepideetan ez litzatekeela inor hil behar edota bizi guztirako lesioak sor litzakeen istripurik izan behar; errepideetan hildakoen edo larriki zauritutakoen kopuru onargarri bakarra zero da.

Zero Ikuspegiaren oinarri etikoa honakoa esatera dator: errepide- eta garraio-sistemako Bide Segurtasunaren kontzeptuak gizartearen beste arloetan aplikatzen diren balio berberak izan behar ditu.

# **MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. PERTSONAK.**



Pertsonen segurtasuna izan behar da guztiaren helburu eta oinarri.

# MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. ERREPIDE- ETA GARRAIO-SISTEMA.




Errepide eta garraio sisteman osagai guztiek, alegia, errepideek, ibilgailuek eta erabiltzaileek elkarrekin jardun behar dute segurtasuna bermatzeko.

# MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. GUZTION ERANTZUKIZUNA.

Erantzukizuna guztiona da; batetik errepide- eta garraio-sistema eratzen duten guztien erantzukizun nagusia segurtasuna da: errepideak mantentzen dituztenena, ibilgailuen egileena, garraio-enpresena, politiko eta funtzionarioena, agintari legegileena eta poliziena), eta bestetik, erabiltzaileen erantzukizuna: zirkulazio-arauak betetzea.



## MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. ISTRIPUEN ONDORIOAK.



Errepide- eta garraio-sistema antolatzeko beste abiapuntu garrantzitsu bat gizakiaren mugak dira, horregatik gizakiak biologikoki jasan dezakeen kanpoko biolentziari egokitu beharko zaizkio. Hori horrela muga-balioak zehatz batzuk daude, zientifikoki ezarriak, automobilen eta errepideen egungo diseinuan oinarrituak.

# MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. EMAITZA.

Bide Segurtasuna sustatzeko lana lesio larriak ekiditzera bideratuta dago, ez lehen bezala, istripurik ez gertatzera bideratzen zena. Lana inguru seguruagoetan egiten da, biribilguneak ipiniz eta bide-segurtasunaren arloan erantzukizun handiagoa utziz udalerrien esku; ibilgailuak eta errepideak egokitzeko lanean ari dira, heriotza sortzen duten istripuen zergatiak aztertuta.



# MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. GIZARTEAREN KONPROMISOA ETA INPLIKAZIOA.



Behar beharrezkoa da herritar-sektore guztien inplikazioa eta konpromisoa Bide Segurtasunaren Zero Ikuspegia lortzeko eta, azkenean, aldaketa gizarte-heldutasunez egin dadin eta errepide- eta garraio-sistema bizitza arriskuan jarri gabe erabili ahal izateko eskakizuna bete dadin.

# MUGIKORTASUNA SEGURURAKO HEZKUNTZA. ZERO IKUSPEGIA. TRAFIKO-ISTRIPUEN ONDORIOZKO HERIOTZAK.



Bide-erabiltzaile guztiok gure gain hartu behar dugu trafiko-istripuetako heriotzak ekiditzeko bakoitzak duen erantzukizuna.